


Net Hurbil

PELLO ZUBIRIA

McNamararen papera Vietnamgo gerran eta Munduko Bankuan

“Vietnamgo gerraren arkitektoa” deitu diote Robert Strange McNamarari kazetariak hil-oharretan. Milioika gizon-emakume masakratu zituen gerraren sustatzaile izan zen. Geroago, Munduko Bankuaren buruzagitza ere eduki zuen, eta haren garaiko kredituek itotzen dituzte gaur txiroak.



NORMAN MORRISON-EN IZENA betiko geratu zen lotua Vietnamgo gerrarekin eta Robert McNamararenarekin 1965eko azaroaren 2an. Egun hartan, Morrison Washingtongo Pentagononora hurbildu zen besoetan urtebeteko Emily txikia zeramala, atarira iritsitakoan han zegoen norbaiti haurra utzi zion eta ondoren bere burua sutu zuen: Vietnamgo sarraskiaren kontra aldarri kiskalita suizidatuz egin zuen Morrisonen.

Ekintza ikaragarria AEBetako Defentsa ministroaren leiho parean burutu zuen. Eta politikaria bereziki inarrosi omen zuen, hala aitortu zuen McNamarak askoz berandua, *The Fog of War* (Gerraren lainoa) film dokumental famatuan. Dimititzeko adina ez zuen hunkitu, noski: AEBetako gerra aferez okupatu zen 1961etik 1968ra, John F. Kennedy-rekin lehenbizi eta Lyndon B. Johnsonekin gero. Vietnamgo gerraren urterik odoltsuenetan.

Uztailaren 6an 93 urterekin hil den politikari zaharrak azken urteotan autokritika publikoa egin zuen behin baino gehiagotan. Hori nabarmendu da McNamararen biografietan. Baina ez autokritika izan zen anbiguotasunik gabea eta ez Vietnamgo gerratik apartatzearekin bukatu ziren AEBen helburu inperialarekiko McNamararen zerbitzu

oso bereziak. Bereziki azkarra zen gizon bati zegozkionak.

Kaliforniako Berkeleyn ekonomian lizentziatu berritan harrapatu zuen II. Mundu Gerrak. Kapitain sartu eta lotinant koronel atera zen, tartean armadari zerbitzu handia egin ziolako hegazkinen bonbaketen eraginkortasuna hobetzen. 1946an Ford konpainian hasi eta buruzagitaraino iritsi zen laster. Haren izena kronikek Fordeen *Falcon* eta batez ere *Lincoln Continental* modeloekin lotzen dute.

1960ko azaroan Fordeko presidente izendatu zuten, baina bost aste berandua Kennedy lehendakari berriak deitu zion AEBetako gobernurako. Harekin sartu zen politikan... eta Vietnamgo sarraskian. Hiru milioi vietnamdarretik gora eta 50.000 soldatu amerikar hiltzea eta herrialde haren suntsitzea ekarriko zituen.

Vietnamgo gerra amerikarren hanka-sartzea izan zela, damutzen zela eragindako heriotzez, ongiaren aldeko eta gaizkiaren kontrako guduketan bortxaren proportzioa zaidu behar dela beti... elkarrizketan bezala filmetan esplikatuta izan ditu zahartzarotan McNamarak.

Jonathan Schell irakasle eta idazleari 1995ean hau esan omen zion: “Herrialde txiker horretan (Vietnamen) aliatuek II. Mundu Gerra

osoan botatako bomba guztien hiru edo lau halako erabili genituen. Ez sinestekoa izan zen. 3.200.000 vietnamdar hil genituen, Hego Vietnamgo soldaduak kontatu gabe. Jainko maitea! Gehiegikeria izan zen. Militarki inposiblea zena saiatu ginen lortzen: jendeen borondatea makurraraztea”.

Armaz ezina, zorrez irabazi

Gerrak bere garaian sortu zuen polemikaren barruan oihartzun handia izan zuten “McNamararen paper” famatuek, berak dimititu ondoren plazaratu zirenek. Haietan bildu zuen ministroak Vietnamgo sarraskiaren gezurra, herritarrei ezkututzen zitzaiena. Baina paperok kaleratu zituen Daniel Ellsberg Nixonek eta estatu osoak pertsegitu zutenean, McNamara isilik egon zen. Bazuen motiboa.

Vietnamgo triskantza buruzagi berriekin aurrera zihoan bitartean, Robert McNamara Munduko Bankuko presidente egin zuten. Kronika batean baino gehiagotan irakur daiteke gerraren txikizioak eragin zizkion damuzko burutazioek eraman zutela Munduko Bankutik gosea, gaitzak eta txirotasuna borrokatzea. Ez da hori pobrezia aditu batzuek McNamaraz duten ustea.

ATTAC elkarteak Eric Toussaintek idatzi du McNamarak 1968tik



Argazki hau *Time* magazinearen artxibokoa da: Robert McNamara Hego Vietnamgo Khann Nguyen generalarekin Mekong ibarra ikuskatzen 1964an. Geroztik McNamarak aitortu zuen gerra galdu izan balute agian gizadiaren kontrako krimenez epaitu izango zituztela, hain ikaragarria izan zen Vietnamen AEBek eragindako genozidioa. Baina gerra haren erantzuleetatik bakar bat auzitara eraman ez zutenez, urte asko beranduago Iraken sortu zuten beste batzuek beste gerra, hau ere gezurretan oinarrituta. McNamarak hurrengo lanbidean egindakoa Jean Ziegler abokatu eta idazle suitzarrak honela esplikatu zuen 2002an *Le Monde Diplomatique*-n: "Vietnamgo gerran egin zuenaz lotsatuta, uste izan zuen salbazioa lortuko zuela Hirugarren Munduko jendeai lagunduz. Baina honetan ere teknokrata moduan jokatu zuen, sinestunaren harrokeriaz. (...) McNamarak Munduko Bankutik jende gehiago hil du Vietnamgo gerran proposatu zituen sarrasketan baino".

1981era ezarritako politikek baimendu dutela herrialde askoren zorpetzea eta agintarien ustelkeria, kanpo zorra erabiliz komunismoaren kontrako eta inperioaren zerbitzurako tresna geopolitikotzat.

"1968tik 1973ra – idatzi du *Munduko Bankua, etengabeko estatu kolpearen* egileak– kreditu gehiago eman zituen 1945tik 1968ra baino. Hegoaldeko herriei bultz egiten zitzaizkien zor handietan sar zitezkeen, esportazioak handitu eta munduko merkaturuan sartzekotan. McNamararen eraginez izugarri zorpetuz herriok berenganatu zituzten alferrikako azpiegiturak (...), ingurugiroa hondatzen zuten urtegi gaizki eginak, eta abar. Diru freskoa erakusten zitzaizkien amuan, agintarien ustelke-

riaren kontrako batere mekanismo-rik gabeko diru likidezia, eta gobernu gehienek onartu zituzten Munduko Bankuaren gomendioak".

MBak baldintzarik onenak eskaintzen zizkien Mendebaldeko potentzien aldeko agintariei (Mobutu Zairen, Suharto Indonésian, Brasil, Txile edo Argentinako diktadurak...) eta aldiz zorrotz baldintzatuta uzten zien dirua aginduak obeditu nahi ez zituztenei (Egiptoko Nasser, Indonesiako Sukarno, Ghanako Nkrumah, Jamaikako Manley...".

James Bovard-ek *Counterpunch* gune amerikar ezkerrekoan garai horretako bi kasu adierazgarri nabarmendu ditu. Bata Vietnam da. Hango gerra okerreko kalkuluekin

eta gezurrekin genozidioraino eraman ostean, McNamarak Munduko Bankutik lagundu zuen Vietnamen berreraikitzea. Geroztik han komunismoaren labelarekin multinazionalen azpikontrataziorako ekonomia kapitalista antolatu izanak izanen du zerikusiren bat.

Bigarren adibidea Afrikakoa da. McNamararen liderrik gogokoena Julius Nyerere omen zen, Bovardek dioenez, Tanzaniako buruzagia. Horregatik, Tanzaniak hamarkada hartan beste ezin herrialdek baino laguntza gehiago jaso zuen MBtik. 1970ko hamarkadan Nyererek, MBren gomendioei segituz, Tanzaniako nekazaritza sistema kapitalistan txertatzeko deliberoa hartu zuen, baserriarren bizimodua hankaz gora jarritz. Soldaduek betiko bizileku zaharrak erre zituzten nekazari, jendeak kamioietan sartu bortxaz eta herri berrietan bildu, etxola berriak eraikitzen behartu, kanpoan lo egitea debekatu...

Munduko Bankuaren esperimentuok gosea eta txirotasuna urritzeko balio ez dutela kontu jakina da. 1980ko hamarkadatik zorren interesak igotzen hasi eta estatu osoak dirurik gabe geratu direla bezala.

Hona Eric Toussaint-ek McNamaraz egin balantzea: "Haren hogeituro urteko kudeaketak bi helburu bilatu zituen arrakastaz: independente izan nahi zuten herriekiko abantaila berreskuratzea eta Hegoaldeko herriak menpekoagotzea". ■

www.argaia.com/nethurbil.php helbidean, gai honi buruzko informazio gehiago eta Interneteko loturak.



ZINKUNEGI
OPTIKA

Garantia.

Egunez egun zure konfiantza geureganatzen dugu, produktu berriak eta zerbitzu berriak etengabe bilatuz.

Hernani, 23 · 20004 Donostia · T. 943 420 624 · zinkunegi@euskalnet.net

